

ELEFANTEEN ONDOAN DENOK GARA INURRI

Aurten **BREIZHEUSKADI** proiektuarekin hasi gara Lauaizeta ikastetxeko hirugarren eta laugarren mailetako ikasleak. Proiektu hau Britainako beste eskola batekin antolatua dago, Britainia Frantzia iparraldean kokatuta dago, eta han, hemen Euskara dugun bezala, beraiek Bretoia dute. Erreportai honetan Euskararen egoera eta Euskarari buruzko datu batzuk aipatuko ditut, modu honetara, Bretoiek irakurtzen dutenean jakingo dute nongoak garen, eta zein den gure hizkuntza.

KOKAPENA:

Euskal Herria, Espainia iparraldean eta Frantzia hegoaldean kokatuta dago. Euskal Herriak Aragoi, Errioxa, Gaztela eta Leon, eta Kantabriarekin egiten du muga Espainiarekin. Frantzian aldiz, Landekin, eta Bearnorekin egiten du muga. Eta lurrez gain, Kantauri itsasoarekin ere egiten du muga.



MAPA LINGUISTIKOA:

Kokapen hori kontuan hartuta, ikusi daiteke Euskara bi hizkuntza erraldoiren ondoan dagoela, Gaztelera eta Frantsesa. Gainera, Ingelera ere entzun daiteke gure inguruan, horrek gu oso txiki garelako pentsa arazten digu. Baina egia ahal da hori? Zergatik uste dugu hori?



ZENBATERAINOKO TXIKIAK GARA? :

Munduan 7000 hizkuntza inguru daude, eta seguru aski hizkuntza ofizialak edo erabiltzen ditugunak bakarrik ezagutzen ditugu; adibidez: Txinera (munduan hiztun gehien dituen hizkuntza), Hindua, Gaztelera, Ingelera, Arabiera...

Euskara horren txiki ikusteko arrazoi batzuk hauek izan daitezke: Euskal Herrian biztanle gutxi gaudela; inguruko hizkuntzak oso handiak direla eta hiztun gehiago dituztela; Euskara dakien jendeak ez duela bultzatzen; EH biztanle gutxi daude, eta horietatik askok erdaraz hitz egiten dute...

Baina ezagutzen ahal ditugun munduko herrialde guztiak? Seguru aski ez, orduan nola ezagutuko ditugu 7000 hizkuntza ezberdin? Guk ezagutzen ez ditugun hizkuntza askok ez dute ofizialtasunik, nola jakingo

dugu beraiek baina handiagoak gara?

Otik 10erako hiztun kopuruaren eskala batean, Euskara non kokatzen den galdetzean, jende gehienak 5etik behera kokatuko luke, kontuan hartuta Txinera 10. postuan dagoela, Euskara oso txikia ikusten bai dute. Ez dakite Euskara ez dela horren txikia, eta bere kokalekua 9.postua dela.

Euskara, munduan hiztun gehien dituzten hizkuntzen %10en artean dago, 1.000.000 (milioi bat) hiztun inguru ditu: EAE-n 790.000 hiztun, Nafarroan 75.000, eta Ipar EH 57.000; gainera, guzti horiei, kanpoan bizi eta euskara dakitenak gehitu behar zaizkie, modu horretan, Euskara milioi bat hiztun izatera iristen da. Zifra horien eta Ethnoligui-ren arabera, 400 hizkuntza daude milioi bat hiztun dituztenak (edo gehiago), eta horien artean Euskara aurkitzen da.

NON EZKUTATZEN DIRA EUSKALDUNAK?:

Euskal Herrian, 3.200.000 biztanle inguru daude, eta horietatik milioi batek bakarrik erabiltzen du Euskara, eta 200.000ra ez dira iristen euskal kultura kontsumitzen dutenak.

Imanol Epelde, Zarautzeko irakaslea, idazlea, blogari, musikagile eta youtuberra da. Berak euskaldun horiek armairutik ateratzeko aholku batzuk ematen ditu:

1. Euskarazko liburu bat irakurri.
2. "Berria" eta "Argia" irakurri.
3. Euskarazko antzezlan bat ikustera joan.
4. Programatu zuree telebista Etb1 1.postuan jarritz.
5. *Badok* app-a deskargatu, eta euskal musika ezagutu.



5

EZ AL GARA GUTXI EUSKARA JAKIN ETA ERABILTZEN DUGUNAK?:

Euskal Herrian 3.200.000 biztanle inguru daude, baina, ez da al gutxi horietatik milioi batek inguru bakarrik erabiltzea? Euskal Herrian dagoen Euskara gaitasuna %43,72-koa bakarrik da: EAE-en %61,43-ak du hizkuntza gaitasuna, Nafarroan %24,2-ak, eta Ipar EH-n %44,55 ak. Gainera, hizkuntza gaitasuna duten guzti horiek ez dute kale erabilerarik, Euskararen kale erabilera EH-n %8,9-a da: EAE-n %14,8, Nafarroan %6,7, eta Ipar EH-n %5,3.

Porzentai hauekin ikus daiteke Euskararen erabilera oso txikia dela, naiz eta erabiltzen duenak baina askoz jende gehiagok jakin. Normala da gure burua horren txiki ikustea EH-a txikia izanik, eta Euskara %8,9-ak bakarrik erabiltzen badu.



NOLA DAKIGU ZEIN DEN EUSKARAREN EGOERA?:

Pertsona edo fundazio asko daude hizkuntzak aztertzen dituztenak; pertsona horietako bat Calvet izan zen, hau, sozioliguista Frantses bat

zen, eta hizkuntzen bizi-indarra neurtzeko balio zuen barometroa asmatu zuen. Barometro honek, 11 aldagairen arabera neurtzen ditu hizkuntzak, horietako aldagai batzuk hauek dira: hiztun kopurua, zenbaten lehen hizkuntza den, ofizialtasuna, hizkuntza horretatik itzultako liburuak, hizkuntza horretara itzultako liburuak, Literatura Nobel sariak, Wikipediako artikuluak, Interneteko barneratze-tasa... Calvetek 500.000 hiztun baina gehiago dituzten 563 hizkuntza aztertu zituen, eta Euskara 51.postuan kokatu zuen.

Twitterren dauden 38 hizkuntzen artean, Euskara da aukeretako bat; Wikipedian 160.000 artikulua daude euskaraz, eta Euskara 35.postuan dago. Datu eta ikerketa hauei esker dakigu Euskara ez dela uste dugun bezain txikia.

Jon Sarasuaren hitzetan ere: Hizkuntza oso handiekin konparatzen garelako ikusten gara txiki.

Baina Unesco-ren (United Nations Educational, Scientific and Cultural Organization) arabera aldiz, euskara arriskuan dago. Ikerketa bat egin zuten, eta hizkuntzen egoera zein zen aztertu zuten. Egoera bakoitza kolore batez markatu zute: txuria, zaurgarria; horia, arriskua; laranja, arrisku nabarmena; gorria, arrisku larria; beltza, desagertua. Euskara kolore horian kokatu zuten. Eraitza horiek lortzeko faktore asko erabili zituzten, baina Itziar idiazabalek, EHUko irakasleak, faktore garrantzitsuenetako bat belaunaldien arteko transmisioa dela dio. Iparraldean, bikoteko bi kideak Euskaldunak izan arren, ez da ziurtatzen transmisioa. Hegoaldean aldiz, biak Euskaldunak izanik

transmisioa %100koa da, eta bikoteko bat bakarrik bada euskalduna, transmisioa %80ekoa da.

ZEIN DA EUSKARAREN OFIZIALTASUNA?:

Euskarak, historian zehar, ia ez du onarpen ofizialik izan. Herriaren hizkuntza izan da beti, baina inoiz ez da erabili administrazioan. Gaur egun, Euskal Herriko eremu batzuetan hizkuntza koofiziala da.

Gaur egun, euskaraz hitz egiten den lurraldeak ez dauka batasun politikorik, Euskal Herria politikoki hiru administraziotan banatuta baitago.

Administrazio bakoitzak euskararen erabilerari tratamendu diferentea ematen dio eta, horren ondorioz, euskara arautzen duten bost araudi ezberdin daude. Egoera nahasi hau ez da batere mesedegarria euskararentzat.

1. Euskal Autonomia Erkidegoa: euskara ofiziala da, gaztelaniarekin batera, Euskal Autonomi Erkidegoan. Euskararen legea 1982. urtean onartu zen.
2. Nafarroako Foru Erkidegoa: Hiru eremutan banatuta dago. Ofizialtasun partziala deitu izan zaio Nafarroa Garaian euskarari eman zaion estatusari, bai eta bere baitan hartzen dituen hiru erregimenei ere. Nafarroako Garaiko euskararen legea 1986. urtean onartu zen eta horren arabera herrialdea hiru eremutan banatu zen euskarak hartzen zuen babesaren arabera.

3. Ipar Euskal Herria: Euskara ez da hizkuntza ofiziala. Ipar Euskal Herriko hizkuntza ofizial bakarra frantsesa da, Frantzia ofizial den hizkuntza bakarra. Euskara ofizial edo koofizial ezin izendatu

ONDORIOAK:

Datu guzti hauekin ondorioztatu dezaket, Euskara ez dela horren txikia, ez dela uste duguna bezain txikia, naiz eta jende askok ez erabil asko gara erabiltzen dutenak, eta egunen batean erabiltzen ez duten, edo ez dakit horiek ikasten eta erabiltzen hasten direnean, ez dugu gure burua horren txiki ikusiko, edo agian bai, baina ez gara hainbestearinoko txikiak izango, elefanteengana urbiltzen hasiko gara, eta hagian burumakur jarriko gara beraien alboan, baina burua altxa eta bizkarra zuzen jartzen, dagoeneko ez gara beraien oinetara bakarrik iritsiko. Baina hori lortzeko ez da naiko bi pertsonen lana, pertsona askorena behar bai da hori lortzeko, eta lortu daiteke esfortzua eginez, baina guztien esfortzuaz, egiten ari direnena, eta beste guztiena.

INFORMAZIO INTURRIAK:

[Munduko mapa koloretsua](#)

<https://www.hiru.eus/eu/lengua-vasca/teorias-sobre-el-origen-del-euskara>

<http://www.soziolinguistika.eus/edb/>

http://www.soziolinguistika.eus/files/hekn2016-eu_1.pdf

https://eu.wikipedia.org/wiki/Euskara#Euskararen_ofizialtasuna

[Imanol Epelderen bideoa](#)

[Euskararen egoera Unescoren arabera.](#)

[Jon Sarasuaren bideoa](#)

<http://wikilf.culture.fr/barometre2012/index.php>

Soziolinguistika klusterrak bildutako datuak.

Euskararen Datu Basetik guk jasoak.